



ZESTOAKO UDALA

Hautaketa prozesuko JARRAIBIDEAK

OHARRA: Hauetako kasuren batean bazaude, **ez zara etxetik atera behar** eta dagokizun osasun zentzora deitu behar duzu:

- **azken 48 orduetan**
 - **Positiboa eman** baduzu COVID19 detektatzeko probetan
 - **Konfinatzeko agindua** jaso baduzu
 - **Harreman esturik** izan baduzu positibo eman duen inorekin (lanean, familian, lagunartean...)
- **Une honetan**, hauetako sintometatik baduzu:
 - **37°C** edo altuagoko sukarra
 - Eztula
 - Giharretako edo artikulazio mina
 - Ezohiko nekea
 - Itolarria edo aire nahikorik ez izateko sentsazioa
 - Dastamen edo usaimen galera

SARRERA:

Proba kiroldegiko pilotalekuan izango da. Bi sarrera egongo dira eta **09:00etan** zabalduko dira:



- Sarrera horietan eskailerak daude. Mugikortasun arazoak izanez gero, lehenbailehen jakinarazi, mesedez.
- Iritsi ahala ilaran jarri, beti ere segurtasun distantzia errespetatuz
- Denbora osoan maskara jantzita eduki beharko duzu, ondo estali ahoa eta sudurra, aurpegiaren eta maskararen arteko tarterik gabe
- Sartzerakoan, NA erakutsi beharko duzu
- Orduan bertan bertaratze-agiria behar duzun adierazi
- Bertan, eseri beharko duzun aulkia zenbakia emango dizute eta bete beharko duzun zinpeko aitorpena.

ARETOAN:

- Markatutako bidetik zuzenean esandako aulkira joan, eseri eta antolatzaileek esan arte itxaron
- Telefonoa ekarri baduzu, itzali eta gorde.
- Zinpeko aitorpena bete zure datuekin, eta sinatu
- Eserita eta isilik egon beharko duzu denbora osoan. Zerbait behar izanez gero, eskua altxa eta zaintzaileren bat hurbilduko zaizu.
- Denbora osoan maskara jantzita eduki beharko duzu, ondo estali ahoa eta sudurra, aurpegiaren eta maskararen arteko tarterik gabe

IRTEERA:

- Emandako denbora baino lehen bukatzen baduzu, altxa eskua eta zaintzaileak esandakoan azterketa, zinpeko aitorpena eta zure gauza guztiekin jaiki eta sartu zaren tokitik irteerara hurbildu
- Azterketa eta zinpeko aitorpenak bakoitzak bere kaxan utzi beharko dituzu eta aretotik atera.
- Azterketarako denbora bukatutakoan, gelditu zure aulkian eta zaintzaileen jarraibideei jarraitu.
- Denbora osoan maskara jantzita eduki beharko duzu, ondo estali ahoa eta sudurra, aurpegiaren eta maskararen arteko tarterik gabe